



ERRI Pape Ra

2020ko abendua • 52. zenbakia

UEMAko KIDE izatea erabaki du Lesakak, eta BORTZIRIETAKO UDAL GUZTIAK DIRA ORAIN manKOMUNITATEKO KIDE **2. OR.**



MIGRAZIO ERDALDUNA HERRI EUSKALDUNETAN
Iñaki Arregi ikerketa bekaren lehen emaitza, kalean
Udalerrri euskaldunetara etortzen diren
erdaldunek euskararekiko duten harremana
aztertu dute, 13 herritan ikerketa eginda. **4. OR.**

Euskararen kaleko erabilera, aztergai
Haurren hizkuntza erabilera ere ikertzen ari da UEMA
2021ean, manKOMUNITATEKO KIDE DIREN UDAL
GUZTIETAN NEURTUKO DU UEMAK euskararen
kaleko erabilera, bilakaera ezagutzeko. **6. OR.**

Lesaka GEHITUTA, 250.000 BIZTANLEKO LURGUNE EUSKALDUNA OSATZEN DUTE UEMAKO UDALERRIEK

URRIAREN 29an egindako udal osoko BILKURAN erabaki zuen Lesakako Udalak UEMAKO kide izatea. Ladis SATRUSTEGI alkatea GUSTURA agertu da UDALAK HARTUTAKO ERABAKIAREKIN, eta UEMAKO kide diren gainerako UDALERRI EUSKALDUNEKIN ELKARLANEAN ARITZEKO GOGOIA eta ILUSIOA NABARMENDU DITU. Lesakarekin, 88 UDALAK OSATZEN DUTE GAUR EGUN UEMA, eta BORTZIRIETAKO UDAL GUZTIAK DIRA DAGOENEO MANKOMUNITATEKO KIDE. NAFARROAN, ZEHAZKI, 14 UDAL DIRA UEMAKO KIDE. URTEZ URTE HEDATZEN ARI DA UDALERRI EUSKALDUNEN LURGUNA.



Lesaka Nafarroako udalerrria da, eta 2.741 biztanle ditu. Bortziritako ibarrean dago, Baztan Bidasoa eskualdean. Bertako biztanleen %79 euskaraz ongi jarduteko gai da, eta kalean %74 aritzen da euskaraz.

Lesakarren %79 euskaraz ongi aritzeko gai da, eta Soziolinguistika Klusterrak iaz Bortziritako hizkuntzen kaleko erabilera neurtzeko egindako lanaren arabera, kalean %74 euskaraz aritzen da Lesakan.

Datuak datu, ordea, udalerrri euskaldun guztietan bezala, Lesakako errealitate soziolinguistikoa zein hauskorra den bada ki bertako udalak, eta euskararen aldeko

hizkuntza politika aurrerakoia beharrezkotzat jotzen du, euskarari eusteko ez ezik, baita hizkuntzaren biziberritzean gainerako udalerrri euskaldunekin batera eragiteko ere. Orain, UEMAKO kide izanda, ildo horretan sakondu nahi du herritarrekin batera, UEMAREN esperientziak eta ezagutzak udaletik soilik bideratu ezin duten hizkuntza politika egiteko aukera

ematen diela sinetsita. Udala euskalduntzeko ez ezik, udalerrria euskalduntzeko eta herritarrek kontzientziatzeko zerbitzuak eskainiko dizkio UEMAK Lesakari.

Lesakako Euskara Batzordeak, udalaren erabakiarekin bat eginez, UEMAREN eta Lesakako euskararen ingurukoak biltzen dituen *Hiru aldiz euskara* bideoa ere egin du. Azaroaren 15ean aurkeztu zuten.

Ladis SATRUSTEGI, Lesakako alkatea: "UDALETIK SOILIK BIDERATU EZIN DUGUN HIZKUNTZA POLITIKA AURRERAKOIA EGITEKO AUKERA EMATEN DIGU UEMAK"

Ladis Satrustegi alkateak nabarmendu duenez, herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatzeko eta euskarari dagokion lekua emateko pausoa da Lesakako Udala UEMAKO kide izatea.

Lesakako Udalak UEMAKO kide izatea erabaki du berriro. Zergatik hartu duzue erabakia?

Euskararen normalkuntzarako bidean, administrazioan lan egiten dugunez, udaletik soilik bideratu ezin dugun euskararen aldeko hizkuntza politika aurrerakoia egiteko aukera ematen digu UEMAK. Horrez gain, euskararen erabilera normalizatzeko eta euskara biziberritzeko laguntza handia da bertze udalerrri euskaldunekin elkartzea. Azkenik, Bortziritako udalerrri guztiak dira UEMAKO kide, orain Lesaka sartu dela. Honek, gure zonaldean ildo beretik eta elkarrekin lan egitea ahalbidetzen digu.

Datu soziolinguistikoen arabera, lesakarren %79 euskaraz ongi aritzeko

gai da, eta euskararen kale erabilera ere altua da: %74. Euskararen arnagunea da Lesaka, beraz. Datuak esanguratsuak izan arren, ordea, hauskortasunaren kezka ere baduzue.

Bai, herri euskalduna da hau, naturaltasunez euskaraz solasten da hemen, baina hainbat faktorek eragin zuzena dute hizkuntzaren erabileran, eta hori ez da Lesakaren kontua soilik. Arnagune guztietan ikusten da: hauskorak gara. Horren aurrean, UEMAK duen esperientzia baliatuz, herritarrek ahalduntzea eta kontzientziatzea da gure asmoa. Nola-bait, inertziatik kontzientziarako saltoa ematea garrantzitsua da, eta hori guztia lantzeko UEMA bidelaguna da.

Herritarren edo alderdiren batek kezkarik agertuko balu erabaki honen inguruan, zer esanen zenuke?

Lasai egon dadila. Herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatzea dago ki udalari, eta ildo horretan aitzindariak



Ladis Satrustegi, Lesakako alkatea.

dira UEMAKO kide diren udalak. Beraz, herritar bakoitzak inolako arazorik gabe izan dezake harremana udalarekin, nahi duen hizkuntzan. Orain, ordea, euskarari dagokion lekua emateko aurrerapausoa egin dugu, eta horrela ulertu behar da erabaki hau.

UEMAko kide diren 88 udalak

Lesaka gehituta, honakoa da UEMAko kide diren udalen zerrenda. Herrian euskaldunen indizea %70etik gorakoa izatea eta udalak UEMAko kide izateko erabakia hartzea dira mankomunitateko kide izateko baldintza nagusiak. 2021erako beste zenbait udal ari dira aztertzen UEMAko kide izatea.

- | | |
|-----------------|---------------|
| 1. Aduna | 9. Amoroto |
| 2. Aizarnazabal | 10. Anoeta |
| 3. Ajangiz | 11. Antzuola |
| 4. Alegia | 12. Araitz |
| 5. Alkiza | 13. Arama |
| 6. Altzaga | 14. Aramaio |
| 7. Altzo | 15. Arantza |
| 8. Amezketa | 16. Arantzazu |

- | | |
|----------------|------------------|
| 17. Arbizu | 36. Deba |
| 18. Areatza | 37. Dima |
| 19. Areso | 38. Ea |
| 20. Artea | 39. Elgeta |
| 21. Ataun | 40. Errezil |
| 22. Atxondo | 41. Etxalar |
| 23. Aulesti | 42. Etxarri |
| 24. Azpeitia | Aranatz |
| 25. Bakio | 43. Ezkio-Itsaso |
| 26. Baliarrain | 44. Gabiria |
| 27. Basaburua | 45. Gaintza |
| 28. Baztan | 46. Gatika |
| 29. Beizama | 47. Gaztelu |
| 30. Bera | 48. Getaria |
| 31. Berastegi | 49. Gizaburuaga |
| 32. Bergara | 50. Goizueta |
| 33. Bermeo | 51. Igantzi |
| 34. Berriatua | 52. Igorre |
| 35. Busturia | 53. Ikaztegieta |

- | | |
|--------------------------|--------------------------|
| 54. Irura | 71. Muxika |
| 55. Itsasondo | 72. Oiartzun |
| 56. Izurtza | 73. Oñati |
| 57. Larrabetzu | 74. Ondarroa |
| 58. Larraun | 75. Orendain |
| 59. Leaburu- -Txarama | 76. Oresa |
| 60. Legorreta | 77. Orio |
| 61. Leizta | 78. Orozko |
| 62. Lekeitio | 79. Otxandio |
| 63. Lesaka | 80. Segura |
| 64. Lizartza | 81. Tolosa |
| 65. Mallabia | 82. Usurbil |
| 66. Mañaria | 83. Zaldibia |
| 67. Markina- -Xemein | 84. Zarautz |
| 68. Mendaro | 85. Zerain |
| 69. Munitibar | 86. Zestoa |
| 70. Mutriku | 87. Ziortza- -Bolibar |
| | 88. Zumaia |

IRITZIA

EUSKARAREN HERRIARI ARNAsa eman ez

Sortu zenetik, UEMAk udalerrri euskaldunen garrantzia lau haizetara aldarrikatu du, euskararen arnaguneek hizkuntzaren biziberritzean duten eragina erakutsi nahian. Bide horretan, gero eta nabarmenagoa da urte askoan egindako lanaren emaitza, eta gaur egun, bateko eta besteko erakunde publikoen, euskalgintzako eragileen eta soziolinguistikako adituen artean inork gutxi jartzen du zalantzan arnaguneak aldarrikatzeko, babesteko eta garatzeko beharra, euskararen biziberritzerako giltzarriak direlako. Besteak beste, horren lekuko da UEMAren eta Euskal Herri osoko hainbat erakunde publikoren artean abiarazitako *Arnasa gara* kanpaina. Arnaguneetako herritarrak ahalduntzea eta gainerako euskal herritarrei ere arnaguneen garrantzia ikusaraztea helburu duena.

Bidean, ordea, zenbait galderarekin egiten dugu topo behin eta berriro. Ohikoenak, udalerrri euskaldunetan herritarrak naturaltasunez euskaraz aritzen badira, zertarako behar duten UEMAko kide izatea edota Euskaraldia bezalako ariketa sozialetan parte hartzea.

Munduko hizkuntzen biziberritze prozesuek argi erakusten dute hizkuntza batek, iraungo badu, ezinbestekoak dituela arnaguneak, lasai eta beste

hizkuntzen mehatxurik gabe bizitzeko eta garatzeko. Hizkuntza ekologiaren kontzeptuak erakusten du arnagune horiek babestea eta garatzea zein garrantzitsua den, naturguneak babesten diren modu berean. Beraz, arnaguneak sendotzea eta zabaltzea giltzarria da, hizkuntza orube sendoa izan dadin euskararen herriarentzat.

“HIZKUNTZA BATEK, IRAUNGO BADU, EZINBESTEKOAK DITU ARNAGUNEAK”

UEMAko kide izateak, udala ez ezik udalerrria ere euskalduntzeko hainbat zerbitzu eta baliabide ekartzen dizkio herritari. Tartean, ezagutzaren eta erabilaren artean etenik egon ez dadin ezinbestekoa dena: herritarren kontzientziarioa. Inertziatik kontzientziarako saltoa ematea beharrezkoa da, erdaretara jotzeko joeraren aurrean euskarari eusteko. Herritarrak kontzientziatzeko ahalegin guztiak, beraz, beharrezkoak dira. Lesakako Udalak, UEMArekin eta Bortzirieta gainerako udalekin elkarlanean, bide horri heldu dio mankomunitateko kide izateko hartu duen erabakiarekin. Arnaguneetan euskararentzat eremu asko irabazi behar baitira orain-



Iraitz Lazkano

UEMAko LEHENDAKARIA

dik. Mundura zabalik dauden herri garaikideak dira udalerrri euskaldunak, eta arau soziala euskaraz aritzea baldin bada ere, hauskorra da egoera soziolinguistikoa, edozein aldaketak eragin dezake-elako euskarak atzerantz egitea. Herritarrak kontzientziatuta eta hautu zehatzak eginda, berriz, hizkuntza ohituretan eragiteko eta euskaldunak gaitzak erakusteko aukera daukagu. Horretarako, amaitu berri den Euskaraldia bezalako ekimenak ariketa eta laguntza ederra dira. Azken batean, lagunei, ezagunei, bisitariei zein gainerakoei adierazten baitiegu euskaraz bizi nahi dugula, udalerrri euskaldunetan naturaltasunez egiten duguna kontzienteki aldarrikatuz.

Badakigu honek guztiak osagarria izan behar duela euskararen lurralde osorako eta eremu digitalerako ezinbestekoa den euskararen aldeko hizkuntza politikarekin. Elkar elikatu behar dute. Arnaguneek eta gainerakoek. Dena da beharrezkoa. Horregatik da garrantzitsua arnasa nondik datorkigun gogoratzea, denon artean osatzen dugun herriak euskararen herria izaten segi dezan.



Iñaki Arregi Beka

“UDALERRI EUSKALDUNETARA ETORTZEN DIREN ERDALDUNEK EUSKARAREKIKO DUTEN HARREMANA ALDAKORRA ETA DINAMIKOA DA, HAINBAT ALDAGAIEN ARABERA”

UEMAK SORTUTAKO IÑAKI ARREGI BEKAREN LEHEN DEIALDIAN GAILENDUTAKO 'MIGRAZIO ERDALDUNA HERRI EUSKALDUNETAN: EUSKARAREN INGURUKO BIZIPENAK ETA IRITZIAK' IKERLANA AMAITU ETA AURKEZTU DUTE EGILEEK. ENARA EIZAGIRRE, EDURNE URRESTARAZU ETA EKHI ZUBIRIAK ONDORIOZTATU DUTENEZ, “ERREALTATE ANITZA DA ERDALDUNAK HITZAREN ATZEAN DAGOENA”. UDALERRI EUSKALDUNETARA HELTZEN DIREN ERDALDUNEK EUSKARAREKIKO DUTEN HARREMANA, BERRIZ, ALDAKORRA ETA DINAMIKOA DA, HAINBAT ALDAGAIEN ARABERA. HORIEN ARTEAN, HARREMAN SAREAK, HAURRAK, LANAREKIKO ESPEKTATIBAK ETA HERRIAN GELDITZEKO ASMOA NABARMENDU DITUZTE BEREZIKI.



Herri euskaldunetako migrazio erdalduna aztertu dute Enara Eizagirrek eta Edurne Urrestarazuk, Ekhi Zubiriarekin batera egin duten ikerlanean.

Udalerrri euskaldunen garapena aztertze-ko, ikerketa sustatzeko eta euskal sozio-linguistikaren inguruko ezagutza areagotzeko Iñaki Arregi beka sortu zuen iaz UEMAK, Eusko Jaurlearitza Hizkuntza Politikarako sailburuordetzaren babesarekin, eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Kontseiluarekin eta UEUekin elkarlanean.

Lehen deialdian, bi lan saritu zituen epaimahaiak. Batetik, Enara Eizagirre, Edurne Urrestarazu eta Ekhi Zubiriak osatutako ikerketa-taldearena: *Migrazio erdalduna herri euskaldunetan: euskararen inguruko bizipenak eta iritziak*. Bestetik, Joseba Garmendia ekonomialariaren eta EHUko irakaslearen lana, tokiko garapen estrategien ingurukoa. Urtarrilean gai horren inguruan Lurralde eta Hizkuntza jardunaldia antolatuko dute UEMAK eta beste zenbait erakundek, eta jardunaldi horietan aurkeztuko dute Garmendiaren lana.

Migrazio erdaldunari buruzkoa, berriz, urriaren amaieran aurkeztu zuten egileek

UEMArekin batera, hedabideen aurrean. 2005az geroztik udalerrri euskaldunetara iritsi diren erdaldunek euskararekiko eta bizi diren herriarekiko zer-nolako harremana, bizipenak eta iritziak dituzten jaso dute ikerlariak, beti ere euskararekiko dituzten beharrak, mugak eta aukerak identifikatuz. 13 herritan egin dute ikerketa: Azpeitia, Baztan, Berastegi, Dima, Etxarri-Aranatz, Igantzi, Ikaztegieta, Lekeitio, Mutriku, Muxika, Ondarroa, Oñati eta Orion. Elkarrizketatu dituzten etorri berrien jatorri zehatzak honakoak dira: Argentina, Dominikar Errepublika, Espainia, Maroko, Nikaragua, Pakistan, Paraguai, Sardinia, Senegal eta Txina.

Etorri berriek euskararekiko duten jarrera ulertzeko hainbat faktore atzeman dituzte egileek: bereziki harreman sare trinkoak, haurrak, lanarekiko espektatibak eta herrian gelditzeko asmoa. Aldagai horiek aldatu ahala, mugimenduak sumatzen dira hizkuntzarekiko jarreretan eta praktikan.

Ikerlana



Izenburua: MIGRAZIO ERDALDUNA HERRI EUSKALDUNETAN: EUSKARAREN INGURUKO BIZIPENAK ETA IRITZIAK.

EGILEAK: ENARA EIZAGIRRE, EDURNE URRESTARAZU, EKHI ZUBIRIA.

ORRIALDEAK: 136.

IKERLANA, PDFan:

LABUR.EUS/MIGRAZIOERDALDUNA



EUSKARAREN KALEKO ERABILERA NEURTUKO DU UEMAK 2021ean, mankomunitateko kide diren udalerrietan

BILAKAERA AZTERTZEKO EZINBESTEKOA DA DATUAK ZEHATZ EZAGUTzea ETA DUELA LAU URTEKO NEURKETAREKIN ALDERATzea. UDALERRI EUSKALDUNETAKO DATUAK EUSKAL HERRI OSOKO LAGINA INDARTZEKO ERABILIKO DITU GERO SOZIOINGUISTIKA KLUSTERRAK. HAINBAT UDALEK ETA ESKOLEK KEZKA ERE AGERTU DUTE HAUR ETA GAZTEengan ERDARARAKO JOERA GERO ETA NABARMENAGOA DELAKOAN, ETA HORREN INGURUKO IKERKETA KUALITATIBOA ABIARAZI DU UEMAK UDAZKEN HONETAN.

Biztanle kopuruaren arabera handienak diren herrietan hizkuntza erabilera neurtzeko azterketak ohikoak diren arren, biztanle gutxiago dituzten herrietan datuak eta azterketak ez dira hain jarraiak izaten. Udalerrri euskaldunen eta arnaguneen egoera soziolinguistiko zehatzago ezagutzeko, ordea, herri guztietako datuak izatea beharrezkoa da.

UEMAK 2017an horregatik erabaki zuen mankomunitateko kide diren herri guztietako hizkuntza ohiturak aztertzeke euskararen kaleko erabilera neurtzea.

Udalen laguntzarekin, duela lau urte ahalegin handia egin zen, eta lau urte geroago berriro datuak aztertzea beharrezkoa da, bilakera zehatzago ezagutzeko.

2021eko neurketaren ingurukoak hurrengo asteotan zehaztuko ditu UEMAK, udalekin elkarlanean. Behin neurketa egindakoan, Soziolinguistika Klusterrak Euskal Herri osoko lagina indartzeko erabiliko ditu UEMAKo kide diren herrietako datuak, euskararen bilakera aztertu ahal izateko.



Udalerrri euskaldunetako hainbat gazte, Oiartzunen, UEMAK 2019an antolatutako Salto! gazte topaketetan.

BORTZIRIETAN, %68,4 ARITZEN DA KALEAN EUSKARAZ

2019ko udazkenean Bortzirietan egindako neurketaren emaitzak aurkeztu zituzten pasa den irailean. 6.000 lagun ingururen hizkuntza erabilera aztertu du Soziolinguistika Klusterrak, eta horren arabera, euskaraz %68,4 aritzen da kalean. Aurreko neurketen aldean, gorantz

egin du euskararen kaleko erabilera. Generoari dagokionez, emakumezkoak gehiago entzun dituzte gizonezkoak baino. Adinari dagokionez, berriz, haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak. Ondoren datoz gazteak, gero helduak, eta adinekoak dira euskaraz gutxien hitz egiten dutenak.

HAURREN HIZKUNTZA ERABILERARI BURUZKO IKERKETA ERE ABIARAZI DU UEMAK UDAZKEN HONETAN

Hainbat udaletatik eta ikastetxetatik jasotako kezkarri erantzun nahian, haurren hizkuntza erabilera buruzko ikerketa abiarazi du udazken honetan UEMAK. Izan ere, telebistaren eta eduki digitalen eraginez, udalerrri euskaldunetako haurren artean gaztelera gero eta lehenago ohikoa bihurtzen ari dela sumatu dute eskola eta guraso askok azkenaldian.

Euskara ohikoak dituen eremu naturalak galtzen ari dela ohartuta, UEMAK 2020ko udaberriaren LHko 30 ikastetxetan haurren hizkuntza era-

bilera neurtzeko asmoa zuen, baina COVID-19ak eragindako osasun larrialdiaren eta alarma egoeraren ondorioz azterketa udazkenean atzeratu behar izan zuen.

Ikasturte berriarekin batera hasi dira UEMA eta hainbat eskola ikerketaren nondik norakoak zehazten, eta behin azterketa amaituta, UEMAREN asmoa da azterketa kualitatiboa egitea 2021ean eta 2022an, egoera horren arrazoiak identifikatzeko eta neurri-zuzentzaileekin lanean hasi ahal izateko.



Transmisioari lotutako estrategia digitala giltzarria da haurren hizkuntza erabilera eragin ahal izateko.



ERREALITATE SOZIOINGUISTIKOA ERRESPETATZEKO ESKAERA



Udalerrri euskaldunetako udal ordezkariak eta herritarrak ETBn gazteleraz hitz egiten ez jartzeko eskatu du UEMAK. Ehunka lagunek egin dute bat eskaerarekin.

Adierazpenak BILTZEAN, UDALERRI EUSKALDUNETAKO ERREALITATE SOZIOINGUISTIKOA ERRESPETATZEKO ESKATU DIO BERRIRO UEMAK ETBri, ELKARLANERAKO ESKUA LUZATZEAREKIN BATERA. IZAN ERE, UDALERRI EUSKALDUNETAKO ALKATEAK, ZINEGOTZIAK EDO HERRITARRAK ETBn gazteleraz HITZ EGITEN AGERTZEAK UDALERRI EUSKALDUNEN IRUDIA LAUSOTZEN ETA DESITXURATZEN DU, IRUDI HORREK EZ DUELAKO HERRI HORIETAKO ERREALITATE SOZIOINGUISTIKOA ISLATZEN.

Egoera irauli nahian, irizpideak finkatu, udalei jakinarazi eta EiTBrekin bilera egin du berriro UEMAK. Honakoak dira UEMAK onartu eta bertako kide diren udaletara helarazitako irizpideak: batetik, UEMAKo kide diren udalek antolatutako prentsa agerraldiak euskara hutsean egitea; bestetik, EiTBko kazetariren batek zuzeneko adierazpen laburrak egiteko eskatuz gero udal ordezkariari, honek euskaraz bakarrik erantzutea. Azkenaldian, hainbat alkate eta udal ordezkari agertu dira albistegietan, eta irizpideak bete dituzte askok, euskarari eutsiz eta eredugarri agertuz. UEMAK, udal ordezkariari ez ezik herritarrei ere egin die dei euskarazko telebista publikoan euskaraz soilik aritzeko.

ABIAN DA ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOARI BURUZKO UNIBERTSITATE ADITU TITULUA

UEMAK, UEUK, EHUk eta Kontseiluak ELKARLANEAN SORTUTAKO ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOAREN (ELE) UNIBERTSITATE ADITU TITULUA ABIAN DA DAGOENEO. URRIAN HASI DEN ETA EKAINERA ARTE LUZATUKO DEN PROMOZIOAN 17 IKASLE ARI DIRA ESKOLAK JASOTZEN. HIRIGINTZAKO ZEIN LURRALDE ANTOLAMENDUKO PLAN ETA PROIEKTUEN HIZKUNTZA ERAGINA NEURTZEKO ETA ZUZENTZEKO BEHARREZKOA DEN ELE tresna ERABILTZEN IKASIKO DUTE GUZTIEK. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN LEGEAK ZEHAZTEN DU EGITASMO BERRIEK HIZKUNTZARENGAN DUTEN ERAGINA NEURTZEKO BEHARRA.



Hirigintzak, etxebizitzek, turismoak edota herri antolamendurako plan orokorrek hizkuntzan duten eragina neurtzeko tresna da ELE. Irudian, Zarautz, biztanle gehien dituen UEMAKo udalerrria.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2/2016 Toki Erakundeen legeak eta berau garatzeko dekretuak Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egiteko beharrezkotasuna jaso zutenetik, gero eta gehiago dira ELE egiteko formazio zehatza jaso duten teknikariak, arkitektoak eta alor askotariko adituak. UEMAK eta Eusko Jaurlaritzak, esaterako, udaletako teknikarientzako ikastaroak eskaintzen dituzte. Areago joz, unibertsitate aditu titulua ere sortu du EHUK, UEMAREN, Kontseiluaren eta UEUren laguntzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin. Ekainera arteko saioetan, ELEren inguruko kontu eduki teorikoak eta praktikoak jasoko dituzte ikasleek.



uema.eus/kartelak Gunea, OSTALARIEN, MERKATARIEN ETA ZERBITZU SEKTOREKO PROFESIOALEN ESKURA

Merkataritzan, ostalaritzan eta oro har zerbitzu sektorean euskara naturaltasunez erabiltzeko baliabide ugari eskaintzen ditu UEMAK, doan. Besteak beste, faktura takoak, kartelak eta sektorekako hiztegiak. Orain, kartelak eta gainerakoak eskatu ahal izateko gunea ere osatu du: www.uema.eus/kartelak. Urriaz geroztik abian da, eta UEMAKO KIDE DIREN HERRIETAKO UDALEK, OSTALARIK, MERKATARIK ETA ZERBITZU SEKTOREKO PROFESIOALEK ERABILI AHAL IZANGO DUTE ZERBITZUA, DOHAINIK. Gune horretan nahi diren kartelak hautatu, eskatu, eta UEMA ARDURATZEN DA PLASTIFIKATZEAZ ETA BIDALTZEAZ.



Merkataritzan eta ostalaritzan ohikoak diren kartelak euskaraz eskaintzen ditu UEMAK.

Ez da berria UEMAK bertako kide diren udalei eta udalerr horietako merkatariei, ostalariei eta zerbitzu sektoreko gainerakoei eskaintzen dien zerbitzua. Orain, ordea, batzuentzat eta besteentzat egindako kartelak bildu, eta horiek errazago eskatzeko eta pertsonalizatzeko gunea prestatu du UEMAK. Horrela, www.uema.eus/kartelak gunera sartuta, nahi dituzten kartelak hautatzeko eta eskatzeko modua izango dute aurrerantzean dendariak eta ostalariek, horretarako eskaera-orria beteta. Dendak, tabernak eta jatetxeak udalerr euskaldunen irudia eta erakusleioa ere badira hein handi batean, eta horregatik UEMAK eta bertako kide diren udalek aha-lerin berezia egiten dute hizkuntza paisaia eta zerbitzuak euskalduntzeko. Gutuna bidali ohi zaie merkatariei eta ostalariei, euskara lehenesteko hainbat arrazoi eta argudio emanez, eta euskaraz aritzeko behar duten laguntza guztia eskainiz. Orain, uema.eus/kartelak gunearekin, merkatariek eta ostalariek errazago izango dute eskaerak egitea eta nahi dituzten kartelak eskatzea.

ARNASGUNEEN GARAPEN JASANGARRIRAKO GAKOAK AZTERTUKO DITUZTE LURRALDEA ETA HIZKUNTZA V. JARDUNALDIETAN



Azken urteotan bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kontseiluak, UEMAK eta Udako Euskal Unibertsitateak antolatuta dute jardunaldia, elkarlanean.

URTARRILAREN 23AN IZANGO DIRA JARDUNALDIAK, DONOSTIAKO SAN TELMO MUSEOAN, ETA DAGOENEO ZABALIK DA IZENA EMATEKO EPEA. LURRALDE ANTOLAKETAK HIZKUNTZARENGAN DUEN ERAGINEAN SAKONTZEAZ GAIN, EUSKARAREN ARNASGUNEEN GARAPEN JASANGARRIA IZANGO DUTE HIZPIDE HAINBAT ADITUK, ARKITEKTURAREN ZEIN TOKIKO GARAPEN POLITIKEN IKUSPEGITIK.

Urteak igaro dira 2014an Lurraldea eta Hizkuntza jardunaldiek lurralde antolaketa hizkuntzarengan duen eragina mahai-gaineratu zutenetik. Horregatik, azken urteotan, arnasguneen babeserako eta garapenerako gakoak aztertu dituzte jardunaldiek. Aurten, areago jotzeko asmoa dute antolatzaileek, arnasguneen garapenerako esperientziak ezagutzeko eta proposamen berriak eginez. Besteak beste, Eskoziako Highlands and Islands unibertsitateko irakasle Conchur O Giollagainek galeararekin gertatu denaren berri emango du. Joseba Garmendiak, berriz, lurgune euskaldunen garapena eskualde eskalan aztertuko du, Iñaki Arregi bekaren lehen deialdian gailendutako lanaren ingurukoak aurkeztuz. Ondoren, Nora Erdoziak eta Arritxu Zelaiak arkitekturaren ikuspegitik aztertuko dute arnasguneen garapena. Azkenik, arnasguneetan oinarritutako hizkuntza politikei buruzko mahai-inguruak emango dio amaiera jardunaldiei. Jardunaldietan parte hartu ahal izateko izena eman behar da, www.ueu.eus webgunera sartuta.



BERTATIK BERTARA

"GURE HERRIA, GURE HIZKUNTZA ETA GURE PRODUKTUAK" ALDARRIKATZEKO KANPAINA EGIN DUTE UEMAK eta UDALEK

61 UDALEK eta ZENBAIT GARAPEN AGENTZIAK EGIN DUTE BAT UEMAREN kanpainarekin, eta UDAN GUZTIEN ARTEAN 200.000 MAHAI-GAINEKOTIK GORA BANATU DITUZTE KANPAINAN PARTE HARTU DUTEN TABERNETAN eta JATETXEETAN. HERRITARRAK eta ZERBITZU SEKTOREKO PROFESIONALAK KONTZIENTZIAZ GAIN, BISITARIEI ERE NABARMENDU ZAIE EUSKARAREN GARRANTZIA.

COVID-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondorioz, azken hilabeteotan aldatuta handia izan du bertatik bestera bi-daiatzeko eta atsedean egunak antolatzeko moduak. Inoiz baino gehiago, gure bazterrak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan da udan eta, horregatik, UEMAK, udalek eta zenbait garapen agentziak Bertatik Bertara kanpaina abiarazi zuten ekainean, herritarrei eta bisitariei erakusteko udalerrri euskaldunak zer-nolako altxorak diren, bertatik bertara zenbat goza daitekeen nabarmenduz, bertako produktuekin, bertako kulturarekin eta bertako ekonomian oinarritutako garapenari eskutik helduta. Beti ere udalerrri euskaldunen nortasuna egokien islatzen duena euskara dela ahaztu gabe.

“Gure bazterrak ezagutzera eta maitatzera gonbidatzen zaitugu, eta horrekin batera, baita horren bertakoa den eta horren bizirik dagoen hizkuntzaz gozatzera ere” zioen denda, jatetxe eta ostatuetarako prestatatutako karteletan eta mahai-gainekoetan ageri zen testuak. Zehazki, horiek izan dira kanpainaren lehen fasean erakusleho nabarmenenak.

UEMAk, 61 udalek eta tokian tokiko zenbait garapen agentziak banatu zieten



Bertatik Bertara kanpainaren baitan, uda honetan 200.000 mahai-gaineko baino gehiago banatu dituzte UEMAK eta kanpainan parte hartu duten udalek ostalarien artean.

material guztia merkatariari, ostalariei eta zerbitzu sektoreko eragileei, herritarren-gana eta bisitariengana heltzeko bitartekari ezin egokiagoak direlakoan. Horrekin batera egin zen udaren atarian komunikazio kanpaina ere, dagozkien sektoreetako arduradunak eta langileak trebatzeko online saioekin batera.

Osasun larrialdiari aurre egiteko neurrikeri zerbitzu sektorea gogor kolpatu dutenez, udal askok egin dituzte sektorea suspertzeko kanpainak. Bertatik Bertara horien guztien osagarri izan da, udalerrri euskaldunen benetako garapena herriko ekonomian eta herriari arnasa ematen dioten sektoreetan dagoela sinetsita.

UDALERRI EUSKALDUNEN BERRI, EGUNERO: URTE OSOAN ZEHAR, SAREAN ETENIK GABE JASO DAITEKE UEMAREN INFORMAZIOA

UEMA.EUS webgunean ez ezik, TWITTER, TELEGRAM, FACEBOOK, INSTAGRAM eta OHIKO SARE BIDEETAN ETENIK GABE ZABALTZEN DU UEMAK INFORMAZIOA, HIZKUNTZA POLITIKARI eta UDALERRI EUSKALDUNEI BURUZKO ALBISTEAK NABARMENDUZ.



Webgunea: uema.eus · Telegram: [UEMAeus](https://t.me/UEMAeus) · Twitter, Instagram: [@uema_eus](https://www.instagram.com/uema_eus) · Facebook: [UEMAeuskaraz](https://www.facebook.com/UEMAeuskaraz)